

## EBI, baloreetan oinarritutako sarea



Ayman, ikaslea

**BIDEOA:** Baloreetan oinarritutako ikaskuntza ezinbesteko garrantzia dau EBI ikastetxe eta ikastoletan. Hezkuntza proiektuaren parte dira. Gizarte honek pertsona prestatuak behar dauazalako, baina baita konprometituek eta solidarioak be. Bideo honetan, ikasle batek, bi ikasle ohik, hainbat irakaslek eta familiek hezkuntza ardatz honen garrantziaren inguruan hitz egin dabe. Euren esperientzia egunero hainbat proiekturen bidez islatzen dan lan jarraikorraren erakusgarria da.

LEIRE BILBAO, INNOBASQUEKO ZUZENDARIA

### «EBIk barneratu dau hezkuntza barrikuntza funtsezkoa dala»

ALKARRIZKETA. Leire Bilbao Innobasque barrikuntzaren euskal agentziako zuzendaria da 2017tik, eta oso ondo ezagutzen dau euskal hezkuntza sistema eta EBI sarea. Izan be, Innobasque eta Elizbarrutiko Ikastetxeen sarea alkarlanean ari dira hainbat proiektutan. "Bizitza erronkak dira eta hezkuntzak erronketaz bat etorri behar dau, gizarteak eskatuko deuskulako", dino alkarrizketa honetan.



JARRAITU IRAKURTZEN

## Lanean jarraituzera animatzen gaituen literatura sariak, barrikuntzakoak, ingurumenekoak...

EBIko ikasleek eta EBI ikastetxe eta ikastolek ikasturtean zehar lortzen dabezan sari ugariak aitopena dira hezkuntza arloan egindako lan jarraituari, baina baita bultzada lan honi be, motibazio aparta bai ikasleentzat, bai irakasleentzat, etengabeko hobekuntzari begira.

Azken asteotan, EBI sareak, besteak beste, literatura sariak, barrikuntzakoak, ekintzaitzakoak edo ingurumen kontzientziatzeak jaso dauz. Hona hemen adibide batzuk.



JARRAITU IRAKURTZEN

## EBIk bere kudeaketa eredua aurkeztu dau ikastetxeen topaketan

EBI sareak Valentzian egin dan Elizbarrutiko Ikastetxeen Topaketan parte hartu dau. Ekainaren 14an eta 15ean ospatu da, eta amankomunean jarri doguz Bizkaiko ikastetxe eta ikastoletan garatzen diran hainbat jardunbide egoki.

JARRAITU IRAKURTZEN



### EBIko hiru ikastegi, digitalizazioa hobetzeko Europako proiektuan

San Viator Ikastetxeak, Artxandape eta Iparragirre Ikastolak Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza digitalizatzeko Europako proiektu batean parte hartu dabe.

GEHIAGO IRAKURRI



### Elizbarrutiko Ikastetxeak, protagonista Zientzia Azokan

Zientzia eta pentsamendu zientifikoa, protagonista ikasturtean zehar ikastegietan, benetako proiektu zientifikoa bihurtzen dira Zientzia Azokan.

GEHIAGO IRAKURRI



### Irratsaio berezia Otxarkoaga Prestakuntza Ikastegitik

Hedabideek EBI sareko ikastetxe eta ikastoletara maiz jotzen dabe hezkuntza barrikuntza, metodologiak edo hainbat programa ezagutzeko asmoz.

GEHIAGO IRAKURRI